

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK PENTSUAK

2021. URTEKO TXOSTENA


Jakinarazpenen kategorizazioa
Atzemandako arriskuen jatorria
Tartean dauden produktuak
Tartean dauden lehengaiak

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2021ean animaliak elikatzerara bideratutako produktuei buruzko 237 jakinarazpen egin dira. Horietatik **36 alertak izan dira (% 15), 162 informazio-jakinazpenak (% 69), 36 mugan egin diren ukapenak (% 15) eta 3 albisteak (% 1).**



Hona hemen urtean zehar RASFF bitartez jasotako jakinarazpenen kopuruan izandako joera:




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen jatorrizko herrialdeei dagokienez, **hirugarren herrialdeak % 44 dira.**




IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUEN JATORRIA

2021ean identifikatutako arrisku gehienak **mikrobiologikoak izan dira (% 50)**. Jarraian bestelakoak (% 17) **egon dira (gorputz arrotzak, etiketatu gabeko GEOak, D bitamina kopuru handia)**; baimendu gabeko gehigarriak/substantziak (% 12); metal astunak eta kutsadura botanikoak (% 5).



Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, **mikrobiologia (118 jakinarazpen)** egon delako izan da. Jakinarazpen gehienak **salmonellak (97 jakinarazpen)** eragin ditu. Salmonella antzeman den lehengaien artean honako hauek daude: **soja-produktuak, koltza-produktuak, ekilore-produktuak, arrain-irinak, txakurrentzako mastikagarriak eta basartoa.**

Jakinrazitako arriskuen kategorizazioa, lauhilekoa




■ 1. lauhilekoa	39	4	4	11	14					
■ 2. lauhilekoa	39	2	4	10	17	5	4	2	1	
■ 3. lauhilekoa	40	5	1	7	10	2	1	1	3	11


TARTEAN DAUDEN PRODUKTUAK

Produktuak aztertuz gero, **lehengaiak eragin dituzte jasotako jakinarazpenen % 61, lagun egiteko animalientzako pentsuek % 20, kontsumitzeko animalientzako pentsuek % 13 eta gehigarri eta aurre-nahasketek % 6.**

2021ean tartean egon diren produktuen kategorizazioa




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen bilakabidea, lauhilekoka:



TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK

Nabarmentzekoak dira, jakinarazpen gehien eragin dituzten lehengaien artean, **soja-produktuak (24)**, **koltza-produktuak (20)**, **arrain-irina (13)**, **ekilore-produktuak (10)**, **txakurrentzako mastikagarriak (9)** eta **basartoa (4)**.



AURREKO URTEKIN ALDERATUTA

2021ean 237 jakinarazpen egin ziren eta 2020an 230 egin ziren. Aurreko urtearekin alderatuta, 2021ean, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- **Egonkor mantentzen da arrisku mikrobiologikoa daukaten jakinarazpenen jatorria (% 50.)**
- **Nabarmen areagotu dira kutsadura botaniko arriskua daukaten jakinarazpenak.**
- **% 10 murriztu dira mugako ukapenak eta % 9 hazi dira informazio-jakinarazpenak.**
- **Atzemandako arriskuak % 14 murriztu dira lehengaietan, eta % 7 hazi dira kontsumitzeko animalientzako pentsu konposatuetan eta % 6 lagun egiteko animalientzako pentsuan.**
- **Jakinarazpenetan zerikusia izan duten produktuak antzeko mantendu dira aurreko urtearekin alderatuta: soja-produktuak, koltza-produktuak, arrain-irina eta ekilore-produktuak.**